


SECCION AMENA.**BLAS LAU-OPIZIO**

Blas ei zan ieltsero, argin ta arotz berez,
Guztietan arro ta danetan baperez;
Pintetan bere zala bera lenengoa,
Sinisturik ekarren dotore burua.
Lonja zar bat erosi beiñ eban kalean,
Ta gogoratu jakon kafea jartea an,
Zelan orretarako puntuan egoen,
Nai eban ipintea albait galantoen.
Au gaitik lagun bati ekarren asmua,
Agertu ta eskatu eutsan kontsejua,
Diñotsa: «gura neuke kanpo eta barru,
Orma ta tabiketan ieltsoz luzidu,
Gero edurra legez ederto zuritu,
Azkenez pinturazko lorakaz politu;
Erakutsirik neure eskualdadia,
Danak deitu dagiden Blas pintatzallia.
—¿Zer derichazu lagun ditudan asmoai?
—Onak baño obeak derichat dan danai,
Baña nola nai dozun kontsejua artu,
Emongo deutsut eta, Blas, ez aserratu;

Zuk legez nik banekiz opizio asko,
Pinturas aurrenengo neuke polituko;
Gero ieltsoagaz luzidu guztia,
Iñok tachau ez daian zure pinturia,
Zelan ez dozun bere leun-leun luziduko,
Zuk eiña dala danak deutse igarriko.
Ieltsozko lan ori amaitzen danean,
Kare-uraz zuritu edurra añean;
Baltz une bat bagarik dan danean bardiiñ,
Dirudiala eun bat jarri dala egiñ,
Esan dagien: «Blasek gaur beintzat zuritzen,
Badaki jakiñ arren len utsik zikintzen.»

Opizio asko ta guzietan gaizki
Jakin baño obe da bat ondo ikasi.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

